


# PR-Gi 2008

## Malloetako zeharkaldia

**12,5 Km / 5 h 15 min**

### NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

### RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




Luzera | Longitud
12,5 km

Desnibela | Desnivel
+1257 m / -344 m

## PR-Gi 2008
### Malloetako zeharkaldia

Zeharkaldi berezia da hau benetan. Aralarko parajerik bortitzenetakoa den honetan, Malloak osatzen dituzten Aralarko gailurrik altuenetakoak aurkitzen ditugu bertan. Zerra baten hortzak balira bezala, bidean aurrera egin ahala, mendi puntak eta mendi lepoak tartekatzen zaizkigu. Alde batera Araitz bailarako herribildu, baserri, larre eta basoak ikusten dira, beheko sakanean. Beste aldera aldiz, Aralarrek eskaintzen duen paisaiarik ederrenetarikoa dago, mendi eta haranez osatua eta harkaiztsua, beste mundu batekoa dirudiena.

Sin lugar a dudas, esta es una travesía muy especial. Siendo el lugar más abrupto de Aralar, en las Malloas nos encontramos con algunas de las más altas cimas. Como si se tratara de los dientes de una sierra, ante el camino se presentan los picos de monte intercalados con hondas vaguadas. A un lado, vemos el valle de Araitz, con sus núcleos de casas, caseríos, prados y bosques. Al otro lado, por el contrario, se abre uno de los más bonitos paisajes que ofrece Aralar, formado por montes y valles, rocoso, parece otro mundo.

## Interes puntuak | Puntos de interés

a



LARRONDO INGURUKO LARREAK: Amezketako inguru honetan dauden zelaiak artzantzak Enirio-Aralar mankomunitatean izan duen garrantziaren adierazle dira. Toponimoak ere badu lanbide horrekin zerikusirik "Larrearen ondoan"etik etor bait daitekeelako. Hala ere, "Laharraren (sasiaren) ondoan"etik eratorritako leku izena izan daiteke. Larrondon dauden tumuluak tokiaren garrantzia sinbolikoaren adierazgarri dira; eta, oso urruti joan gabe, arkuek ere aurki daitezke.

PASTOS ENTORNO A LARRONDO: Estos prados de la zona de Amezketa son representativos de la importancia del pastoreo en la mancomunidad de Enirio-Aralar. El topónimo también está relacionado con ese oficio porque podría provenir de "al lado del pasto", aunque también de "al lado del zarzal (laharre)". Los túmulos existentes en Larrondo son representativos de la importancia simbólica del lugar; y sin ir muy lejos también se pueden encontrar arkuek (chabolas cupulares de piedra).

b



ALDAON BARRENEKO IKUSPEGIA: Aralar mendizerrako bigarren tontorrik altuena eta Aralarko Malloetako altuena da Aldaon (1.390m). Inguruko mendi askoren moduan harrizko tontorra du, bertarako igoera zelai berdeetan zehar egiten den arren. Ekialderantz, Nafarroarantz, amildegi handi batek ixten du bidea. Tontorrean, beste mendi askotan gertatzen den antzera, garai batean jarritako bi postontzi daude.

VISTAS DESDE LAS FALDAS DE ALDAON: Aldaon (1.390m) es la segunda cima más alta de la sierra de Aralar y la más alta de las Malloas de Aralar. Del mismo modo que muchos montes de los alrededores tiene la cima de roca, aunque la subida se realiza a través de verdes prados. Hacia el este, hacia Nafarroa, un gran precipicio cierra el camino. En la cima, como ocurre en otros muchos montes, existen dos buzones que se pusieron hace tiempo.

c



MAILOETAKO IKUSPEGIA: Ibilbide honetan, Artubiko gainetik hasi eta Intzako Dorreraino (Irumugarrietaraino), bai Gipuzkoarako eta bai Nafarroarako ikuspegi ederrak daude. Nafarroarantz begiratuta bertako herrixkak (Azkarate, Uztegi edo Gaintza) dira ikusgai. Gipuzkoarantz begiratuta, berriz, Arritzaga arroilatik haratago dauden Aralar Natur Parkeko mendiak (Txindoki, Uzkuiti edo Ganboa) eta zelaiak ikusten dira.

PANORÁMICA DE LAS MALLOAS: En este recorrido, empezando desde la cima del Artubi y hasta Intzako Dorrea (Irumugarrieta), existen panorámicas espectaculares tanto de Gipuzkoa como de Nafarroa. Mirando hacia Nafarroa se pueden ver los pueblos de la zona (Azkarate, Uztegi o Gaintza); mirando hacia Gipuzkoa, en cambio, se ven los montes (Txindoki, Uzkuiti o Ganboa) y los pastizales que se encuentran más allá del barranco de Arritzaga.

d



IRUMUGARRIETAKO MALDETATIK: Intzako Dorrea (Irumugarrieta, 1.430m) Aralarko tontorrik garaiena da. Toponimoak kontrakoa ulertzera daraman arren, puntu honetan ez dira inolako hiru muga elkartzen. Tontorra bera Nafarroan kokatzen da eta, azken metroak lapiaz baten gainetik egiten dira. Bertara hainbat ibilbideetatik eta bideetatik iritsi daiteke: Amezketa edo Lizarrusti (Ataun), Gipuzkoan, edo Betelu, Nafarroan, dira ohikoenetako batzuk.

PANORÁMICA DESDE LA ZONA DE IRUMUGARRIETA: Intzako Dorrea (Irumugarrieta, 1.430m) es la cima más alta de Aralar. Aunque el topónimo de a entender lo contrario, en este punto no confluyen tres lindes (hiru muga). La cima misma se sitúa en Nafarroa y los últimos metros se realizan sobre un lapiaz. A la misma se puede acceder por diferentes senderos y caminos: Amezketa o Lizarrusti (Ataun), en Gipuzkoa, o Betelu, en Nafarroa, son los más habituales.

## MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Ahalegina<br>Esfuerzo | MIDE ordutegia<br>Horario MIDE | + info MIDE |
|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 2 | 3 | 3 | 5 h 15 min | www.mide.montanasegura.com |
| **Hainbat arrisku-faktore daude**<br>Hay varios factores de riesgo | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Bide mailakatua edo zoru irregularra**<br>Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares | **3 eta 6 ordu arteko ibilaldi jarraia**<br>De 3 a 6 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK | |

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

## + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

**www.gipuzkoanatura.eus**
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Ikuspegi panoramikoa**
Vista panorámica

**Aisia-lekua**
Area recreativa

arazi ideiak borobiltzen

Amezketako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gipuzkoako Mendizale Federazioa